

BILBAO AURRERA 2021

BILBO IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN BIDEZ SUSTATZEKO PROIEKTUEN POLTSA, IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA/EDO ZINEMAREN SEKTOREARI ZUZENDUA

1. Proiektuen poltsaren xedea eta helburuak

2020an, COVID-19-ari aurre egiteko neurrien ondorioz, kultur egitasmo asko bertan behera geratu ziren epe labur eta ertainean. Zalantzarik gabe, horrek ondorio esanguratsuak izan zituen maila guztietan. Kultura, zinema eta ikus-entzunezkoen industria ere koronabirusak jota egon ziren; oraindik ere, parean daukagun egoera ez da oso itxaropentsua.

Egoera zail honetan, Bilboko Udalak, Arriaga Antzokiaren eta, zehazki, sektorean erreferentea den Zinebi jaialdiaren bidez, bertoko ikus-entzunezkoen sektorea defendatu, sustatu eta babestu nahi du.

Horregatik guztiagatik, BILBO IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN BIDEZ SUSTATZEKO PROIEKTUEN bigarren POLTSA, 2021EKOAK, URIKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA/EDO ZINEMAREN SEKTOREARI ZUZENDUA, aurkezten dugu. Poltsa honen bitartez, BILBOKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA ZINEMAREN SEKTOREA BABESTU, LAGUNDU ETA SUSTATU GURA DUGU.

Proiektuen poltsa honekin, eta Udalak hartu dituen beste neurri batzuekin batera, ekintza-plan bat egin gura dugu, gure hiriko ikus-entzunezkoen alorreko eta zinemako ekoizpenari lotutako eragileen eta erakundeen arteko sare bat osatzeko eta aliantzak areagotzeko.

Udalak Bilbao Aurrera 2021 planean hartutako neurrien artean, eta uriko ikus-entzunezkoen ekoizpena piztu eta sustatze aldera, Arriaga Antzokiak, Zinebiren bitartez, ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektoreari lotutako Bilboko enpresei dei egiten die ikus-entzunezkoen funts baten sorreran parte hartzeko, geure hiria sustatzeko helburuarekin.

Krisi osteko testuinguru honetan, Arriaga Antzokiak uste du une egokian gaudela fikziozkoak ez diren piezak/bideoak/obrak ekoizteko (hau da, dokumentalak eta/edo bideo instituzionalak eta/edo promoziozko spotak), urian kulturaren eta/edo turismoaren alorreko aktiboen balioa nabarmentzeko eta gogoeta egiteko. Ez dira aintzat hartuko, beraz, film laburraren eta/edo bideo kliparen formatuak.

Ikus-entzunezko lan hauek udalaren webguneetan sartuko dira (Kultura Saila, udaleko zinema-jaialdiak, Bilbao Bizkaia Film Comission, kulturguneak, kultur eta merkataritza elkarteak, turismo bulegoa, ...), eta udalak egoki irizten dien leku, ekitaldi eta kulturguneetan erakutsiko dira.

Ahal dela, proiektuak berritzaileak izango dira.

2. Helburuak

Helburu nagusia da Bilbo sustatzeko ikus-entzunezkoen funtsa eguneratzea, aberastea eta osatzea. Hainbat abiapuntu egon daitezke, adibidez, Bilboko ondare-eraiakinak, hirigintzaren alorreko eraldaketa, auzo xelebreak, jarduera etengabea, eskaintza kulturala, komertzioak eta elkarteak, jaiak, herritarrak, ohiturak, turismoko eskaintza...

Proposamen honen bidez, uriko sortzaile eta ekoizleei gonbidapena egiten zaie gure uria pentsatzera eta birpentsatzera, orain eta etorkizunean, zalantzez josia baina aukeraz betea dagoena.

Sorkuntzako proposamen arras ezberdinak jaso nahi dira, gure uria sustatzen lagunduko digutenak baina, halaber, uriari buruzko gogoetarako espazio bat sortuko dutenak: Zelan aldatu da Bilbo azken urteetan? Zelan egiten dio aurre uriak normaltasun berriari, zerbitzuetatik hasi eta kultur eta turismo eskaintzaraino? Zelako erakarpenak eskaintzen ditu hiriak ondarean, kulturean, ospakizunetan eta abarrekoetan? Zelakoa da kulturgintza hirian eta zelako erronkak dauzka? Zelako hiria —askotarikoa, inklusiboa eta parekidea— eraiki beharko genuke kulturaren bidez? eta abar.

3. Poltsaren ezaugarriak

Proiektuen poltsaren aurrekontua, guztira, 50.820€ da.

Gehienez 3 proiektu aukeratuko dira, eta bakoitza 14.000 euroekin finantzatuko da. Zenbatekoan era guztietako gastuak edo kostuak sartuko dira, BEZa izan ezik, zeina profesional, enpresa edo entitate onuradunari ordainduko baitzaio, dagokion zerga-tasaren arabera.

Proiektuak hautatzeko eskumena izango duen organoa Balorazio Batzordea da, Bilboko Udaleko Kultura Saileko Zinegotzia izango duena buru, Bilboko Udaleko Kultura Saileko Zuzendariak eta ZINEBI-Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdiko Zuzendariak osatzen dutelarik, edota kasua dela, haiek izendatutako ordezkariaren bat.

Hautatutako lanen titulartasun osoa C.A.C. Teatro Arriaga, S.A-ren jabetzakoa izatera igaroko da, inolako denbora eta espazio mugarik gabe, eta egile-eskubideei kalterik egin gabe.

4. Poltsaren oinarriak eta betekizunak

A) Bilbon finkatuta dauden ikus-entzunezkoen eta zinemako ekoizpen-etxe eta elkarte profesional guztiek parte hartu ahalko dute, alde batera utziz BILBO IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN BIDEZ SUSTATZEKO PROIEKTUEN 2020ko POLTSAN, URIKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA/EDO ZINEMAREN SEKTOREARI ZUZENDUAN, edo 2020an Kultura Sailaren eta haren mendeko erakundeen beste edozein laguntza-deialditan onuradun izan direnak.

B) Eskatzaile bakoitzak gehienez proiektu bat aurkeztu ahalko du.

C) Proposamen guztiek hiriaren elementu eta/edo jardueretako batzuk jaso behar dituzte (deialdi honetako helburuen atalean azaldu ditugu).

D) Obren iraupena, gehienez ere, 45 minutukoa izango da.

E) Hartutako obra guztiak 2021eko abuztuaren 30a baino lehen amaitu eta eman behar dira.

F) Hautatutako proiektu guztiak aurretik argitaratu gabeak izan behar dira. Hau da, aurretik jaialdietan edo jendaurrean erakutsi gabeak, zinema-aretoetan estreinatu gabeak, eta merkaturatu gabeak eta eman gabeak, bai telebistan (izan Estatukoa, autonomia-erkidegokoa edo tokian tokikoa), bai VOD plataformetan, bai online.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Proposatutako proiektu bakoitzeko, dossier bat aurkeztu beharko da. Dosierrak proiektuari buruzko informazio hau eduki behar du:

A) Ekoizpen-etxearen datuak

B) Ekoizpen-etxearen azken aldiko jardueraren deskribapen laburra

C) Izenburua

- D) Laburpena
- E) Gidoia eta/edo eskaleta
- F) Proposamenaren irudizko, soinuizko eta estetikazko garapena
- G) Agertokiak (eta pertsonaiak, egotekotan)
- H) Kronograma
- I) Lantalde teknikoa eta artistikoa, xehetasunez
- J) Eskaera egin duen enpresak Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (EJZ) ordaindu izanaren ziurtagiri eguneratua

Aurkeztu beharreko dosierak 150 orrialdeko muga izango du (DIN A4). Dokumentu bakarrean aurkeztuko da, PDF formatuan.

6. Proiektuak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta modua

Proiektuak maiatzaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira.

Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon ahalko dira.

Proiektuak eta 5. puntuan adierazten diren agiriak posta elektronikoz helarazi beharko dira honako helbide honetara: zinebi@zinebi.eus. Gaian, hau adierazi behar da: BILBO IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN BIDEZ SUSTATZEKO PROIEKTUEN POLTSA, IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA/EDO ZINEMAREN SEKTOREARI ZUZENDUA. Dokumentazio osoa aldi bakar batean igorriko da. Horretarako, tresna bereziak erabili ahalko dira, adibidez, wetransfer.

Proiektua jaso izana berretsiko da, proiektua jaso den email beraren bidez. Gainera, parte-hartzaileei egin behar zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak helbide elektronikoko berera bidaliko dira.

7. Eskaerak onartzea eta akatsak zuzentzea

Balorazio Batzordeak egiaztatuko du eskabideek betetzen dituzten edo ez deialdian ezarritako baldintzak eta xehetasunak, eta dokumentazioan akatsik edo hutsunerik aurkituz gero, zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari; 10 egun naturaleko epea izango du horretarako.

Epe horretan akatsak zuzendu ezean, eskaera beste barik ezetsiko da.

8. Proiektuen poltsa arautuko duten balorazio-irizpideak

Proiektuak hautatzeko, Balorazio Batzordeak honako adierazle eta irizpide hauek ebaluatuko ditu:

- Proiektuaren kalitatea, interesa, bideragarritasuna eta berrikuntza (2 puntu)
- Gidoia eta/edo eskaleta (2 puntu)
- Proposamenaren irudizko, soinuzko eta estetikazko garapena (2 puntu)
- Agertokiak (eta pertsonaiak, egotekotan) (2 puntu)
- Kronograma (puntu 1)
- Lantalde teknikoa eta artistikoa, xehetasunez (puntu 1)
- Talde tekniko eta artistikoaren % 30 baino gehiago emakumeek osatzea (2 puntu)
- Proiektuaren jatorrizko hizkuntza euskara izatea (2 puntu)

Guztira, gehienez: 14 puntu

9. Kanporatzeko arrazoiak

Balorazio Batzordeak aukeran izango du proiektuak deialditik kanpo uztea, baldin eta:

- Deialdiko laugarren klausulan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo entitateek aurkeztutako proiektuak badira.
- Proiektuaren helburua kulturaren edo sormenaren arlotik kanpo dagoela irizten badio, edo arlo horri hurbildu bakarrik egiten zaiola irizten badio.
- Proiektuaren aurrekontuak ez badu jasotzen jarduera osorik gauzatzea, halako moldez non hura gauzatzeko beharrezkoa den poltsaren sustatzaileak gasturen bat egitea.
- Atalaren balorazioan 7 puntu baino gutxiago lortzen dituztenak.
- Bilbon finkatuta dauden ikus-entzunezkoen eta zinemako ekoizpen-etxe eta elkarte profesionalen lanak, baldin eta BILBO IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN BIDEZ SUSTATZEKO PROIEKTUEN 2020ko POLTSAN, URIKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA/EDO ZINEMAREN SEKTOREARI ZUZENDUAN, edo 2020an Kultura Sailaren eta haren mendeko erakundeen beste edozein laguntza-deialditan onuradun izan badira.

10. Proiektuak hautatzea, erabakia jakinaraztea eta formalizazioa

Hoberen baloratzen diren 3 proiektuak izango dira hautatuak. Balorazio Batzordeak txosten bat emango du ebaluazioaren emaitzarekin (aurreko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta erdiesten da) eta hautatu beharreko proiektuak proposatuz. Txosten hori www.teatroarriaga.eus web-orrian argitaratuko da.

Balorazio Batzordeak zerrenda bat proposatuko du ordezkoen izenekin, hautatutako proiekturen bat ez balitz gauzatuko erabiltzeko, dela uko egin diotelako edo dela beste edozein kausarengatik.

Balorazio Batzordeak hilabeteko epea izango du, gehienez, proiektuak hautatzeko proposamena egiteko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Nolanahi ere, hautatutako proiektuen zerrenda posta elektronikoz jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari.

Deialdia egiten dutenek aukeran izango dute ezein proiektu ez hautatzea, edo proiektu bat partez bakarrik hautatzea.

Hautatutako proiektuekin, zerbitzuen merkataritza-kontratua egingo da C.A.C.Teatro Arriaga, S.A. sozietatearekin. Kontratu horretan adieraziko da diru-zenbatekoaren % 30 alde aurretik ordainduko dela. Zenbatekoaren gainerakoa lana amaitzean eta ematean ordainduko da, egindako lanarekin ados egonez gero. Kontratuak Arriaga Antzokiaren web-orrian argitaratuko dira, kontratariaren profilaren atalean.

Lanak ez badira azkenik egiten edo beraien kalitatea ez badator bat aurkeztutako proiektuarekin, aurreratutako zenbatekoa itzuli egin beharko da eta inola ere ez da ordainduko poltsaren diru-zenbatekoa.

Proiektuen poltsa honetan parte hartzeak deialdiaren oinarrietan ezarritako arauak onartzea dakar.

Balorazio Batzordeak baimena dauka aurkeztzen diren zalantzak argitzeko, eta proiektuen poltsa hau ondo garatu eta burutzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri honetan aurreikusita ez dauden gauzetarako.

Bilbon, 2021ko martxoaren 31an.

BILBAO AURRERA 2021
BOLSA DE PROYECTOS PARA LA PROMOCIÓN AUDIOVISUAL DE BILBAO
DIRIGIDAS AL SECTOR AUDIOVISUAL Y/O CINEMATOGRAFICO

1. Objeto y fines de la Bolsa de Proyectos

En el 2020, las medidas de contención del COVID-19 supusieron la cancelación absoluta de muchos proyectos culturales y tuvieron, sin duda, repercusiones relevantes a todos los niveles. La cultura, el cine y la industria audiovisual también se contagiaron del coronavirus, y el horizonte que a día de hoy todavía podemos vislumbrar no es del todo alentador.

En esta compleja tesitura, el Ayuntamiento de Bilbao, a través del Teatro Arriaga y en concreto del festival Zinebi, referente en el sector, aspira a defender, apoyar y proteger el sector audiovisual local.

Por todo ello, se presenta a continuación la segunda convocatoria de la BOLSA DE PROYECTOS PARA LA PROMOCIÓN AUDIOVISUAL DE BILBAO DIRIGIDA AL SECTOR AUDIOVISUAL Y/O CINEMATOGRAFICO DE LA VILLA 2021, que pretende fomentar la PROTECCIÓN, APOYO Y PROMOCIÓN DEL SECTOR AUDIOVISUAL Y CINEMATOGRAFICO BILBAÍNO.

Esta bolsa de proyectos, junto a otras medidas adoptadas por el Ayuntamiento, pretende confeccionar un plan de acción para seguir sumando alianzas y tejiendo red entre las diferentes instituciones y los numerosos agentes vinculados a la producción audiovisual y cinematográfica de nuestra ciudad.

Dentro de las medidas adoptadas por el Ayuntamiento en el Plan Bilbao Aurrera 2021, y en aras de incentivar y apoyar la producción audiovisual de la villa, el Teatro Arriaga (Zinebi) convoca a las empresas bilbaínas vinculadas al sector audiovisual y cinematográfico a tomar parte en la creación de un fondo audiovisual con objeto de promocionar nuestra ciudad.

En este contexto de postcrisis, el Teatro Arriaga considera que es un momento propicio para producir piezas/videos/obras de no-ficción (documentales y/o videos institucionales y/o spots promocionales) orientados a la reflexión y puesta en valor de los activos culturales y/o turísticos de la Villa. Quedan excluidas, por lo tanto, obras en formato cortometraje y/o videoclip.

Dichas obras audiovisuales serán alojadas en diferentes portales web del Ayuntamiento (Área de Cultura, festivales de cine municipales, Bilbao Bizkaia Film Comission, centros culturales, asociaciones culturales/comerciales, oficina de turismo...) y serán exhibidas en lugares, eventos y centros culturales que el Ayuntamiento considere pertinentes.

Preferentemente, los proyectos deberán ser novedosos.

2. Objetivos

El objetivo primordial es actualizar, enriquecer y completar el fondo audiovisual promocional de Bilbao tomando como puntos de partida, por ejemplo, sus edificios patrimoniales, su transformación urbanística, sus singulares barrios, su incesante actividad y oferta cultural, sus comercios y asociaciones, sus festividades, su ciudadanía, sus costumbres, su oferta turística...

En esta propuesta se invita a los creadores/as y productores/as de la Villa a pensar y repensar la ciudad en este presente-futuro un tanto incierto pero que, sin duda alguna, se nos presenta cargado de oportunidades.

Se pretende acoger propuestas creativas muy diversas que nos ayuden a promocionar nuestra Villa pero que también susciten un espacio de reflexión sobre la misma: ¿Cómo ha cambiado Bilbao en los últimos tiempos? ¿Cómo afronta la Villa esta nueva normalidad, desde sus servicios hasta su oferta cultural y/o turística? ¿Qué atractivos patrimoniales, culturales, festivos... ofrece la ciudad? ¿Qué tejido cultural conforma la ciudad y qué retos se plantean?, ¿Qué tipo de ciudad, diversa, inclusiva e igualitaria, tendríamos que construir a través de la cultura? etc....

3. Características de la Bolsa

El presupuesto total de la Bolsa de proyectos es de 50.820€-.

Se seleccionará un máximo de 3 proyectos, que se financiarán con 14.000€ cada uno. Este importe incluirá todo tipo de gastos o costes, salvo el IVA, que se abonará al profesional, empresa o entidad beneficiaria, conforme al tipo impositivo que corresponda.

El órgano competente para la selección de los proyectos será una Comisión de Valoración presidida por el Concejel del Ayuntamiento de Bilbao e integrada además por el Director del Área de Cultura del Ayuntamiento y la directora de ZINEBI-Festival Internacional de Cine Documental de Bilbao o personas en las que deleguen.

La plena titularidad de los trabajos seleccionados pasará a ser del C.A.C.Teatro Arriaga,S.A. sin límite temporal y espacial, sin perjuicio de los derechos de autoría.

4. Bases y requisitos de la Bolsa

A) Podrán participar todas las productoras y asociaciones audiovisuales y cinematográficas profesionales afincadas en Bilbao, exceptuando aquellas que ya fueron beneficiadas en la BOLSA DE PROYECTOS PARA LA PROMOCIÓN AUDIOVISUAL DE BILBAO DIRIGIDA AL SECTOR AUDIOVISUAL Y/O CINEMATOGRAFICO DE LA VILLA 2020 o en cualquier otra convocatoria de ayudas del área de Cultura y sus entidades dependientes en 2020.

B) Cada solicitante podrá presentar un máximo de 1 proyecto.

C) Todas las propuestas tienen que recoger algunos de los elementos y/o actividades de la ciudad expuestas en el apartado de objetivos de esta convocatoria.

D) La duración de las obras será como máximo de 45 minutos.

E) Todas las obras seleccionadas deberán finalizarse y ser entregadas antes del 30 de agosto del 2021.

F) Todos los proyectos seleccionados tendrán que ser inéditos. No pueden haber sido exhibidos en festivales ni en público, ni estrenadas en salas de cine, comercializadas ni emitidas por algún canal de televisión (nacional, regional o local), plataformas VOD o cualquier medio on-line.

5. Documentación a presentar

Se deberá presentar un dossier por cada proyecto propuesto. El dossier tendrá que contener la siguiente información relativa al proyecto:

- A) Datos de la productora
- B) Breve descripción de la actividad reciente de la productora
- C) Título
- D) Sinopsis
- E) Guion y/o escaleta
- F) Desarrollo visual, sonoro y estético de la propuesta
- G) Escenarios (y personajes si los hubiere)
- H) Cronograma
- I) Equipo técnico y artístico detallado
- J) Justificante de haber abonado el Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE) actualizado de la empresa solicitante

El dossier a presentar tendrá un límite de 150 páginas (DIN A4), se presentará en un único documento y en formato PDF.

6. Plazo y modo de presentación de proyectos y documentación

Los proyectos se podrán presentar hasta el 15 de mayo.

Los proyectos podrán enviarse en euskera o castellano.

Los proyectos con la documentación que se especifica en el punto 5, se presentará por correo electrónico en la siguiente dirección de correo: zinebi@zinebi.eus, con indicación de asunto: BOLSA DE PROYECTOS PARA LA PROMOCIÓN AUDIOVISUAL DE BILBAO DIRIGIDAS AL SECTOR AUDIOVISUAL Y/O CINEMATOGRAFICO. Toda la documentación se realizará en un solo envío y se podrán utilizar herramientas de envío como, por ejemplo, wetransfer.

Se confirmará la recepción del proyecto a través del mismo correo del que se ha recibido el proyecto. Además, las comunicaciones y notificaciones que se deban realizar a los y las participantes también se efectuarán a ese mismo correo.

7. Admisión de solicitudes y subsanación de deficiencias

La Comisión de Valoración de los proyectos verificará que las solicitudes cumplen los requisitos e indicaciones recogidas en la convocatoria y, en caso de detectar documentación defectuosa o incompleta, requerirá del solicitante la subsanación de la misma, en un plazo de 10 días naturales.

Si en ese plazo no se subsanan las deficiencias, se desestimará la solicitud sin más trámite.

8. Criterios de valoración que regirán la Bolsa de proyectos

Para la selección de los proyectos, la Comisión de Valoración evaluará los siguientes indicadores y criterios:

- Calidad, interés, viabilidad e innovación del proyecto (2 puntos)
- Guion y/o escaleta (2 puntos)
- Desarrollo visual, sonoro y estético de la propuesta (2 puntos)
- Escenarios (y personajes si los hubiere) (2 puntos)
- Cronograma (1 punto)
- Equipo técnico y artístico detallado (1 punto)
- Más del 30% del equipo técnico y artístico compuesto por mujeres profesionales (2 puntos)
- Euskera como idioma original del proyecto (2 puntos)

Total máximo: 14 puntos.

9. Causas de exclusión

La Comisión de Valoración podrá excluir de la convocatoria proyectos presentados a la misma cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

- Aquellos presentados por personas o entidades que no cumplan los requisitos establecidos en la cláusula cuarta de la convocatoria.
- Aquellos cuyo objeto se considere que se aparta del ámbito cultural o creativo o que lo aborda de forma tangencial.
- Aquellos cuyo presupuesto no contemple la realización íntegra de la actividad, de forma que para llevarse a cabo fuera necesario que el promotor de la Bolsa tuviera que realizar cualquier tipo de gasto.

- Aquellos que en la valoración del apartado obtengan una puntuación inferior a 7 puntos.
- Aquello trabajos de empresas productoras y asociaciones audiovisuales y cinematográficas profesionales afincadas en Bilbao, que ya fueron beneficiadas en la BOLSA DE PROYECTOS PARA LA PROMOCIÓN AUDIOVISUAL DE BILBAO DIRIGIDA AL SECTOR AUDIOVISUAL Y/O CINEMATOGRAFICO DE LA VILLA 2020 o en cualquier otra convocatoria de ayudas del área de Cultura y sus entidades dependientes en 2020.

10. Selección de proyectos, notificación y formalización

Los 3 proyectos mejor valorados serán los seleccionados. La Comisión de Valoración emitirá un informe que concrete el resultado de la evaluación realizada, aplicando los criterios que se señalan en el artículo anterior y proponiendo los proyectos a seleccionar. Ese informe se publicará en la página web www.teatroarriaga.eus.

La Comisión de Valoración podrá proponer una relación nominal de suplentes en previsión de que algún proyecto seleccionado no se realizara, bien por renuncia, bien por cualquier otro motivo.

El plazo máximo para que la Comisión de Valoración realice la propuesta de selección de proyectos será de un mes, a contar desde la finalización del plazo de presentación de las solicitudes.

En todo caso, la relación de proyectos seleccionados se notificará personalmente a los y las solicitantes a través de correo electrónico.

Se podrá declarar desierta la convocatoria de forma parcial o total.

Con los Proyectos seleccionados, se procederá a formalizar un contrato mercantil de servicios con la sociedad C.A.C. Teatro Arriaga, S.A. que contemplará el abono por anticipado de un 30% del importe correspondiente. Siendo el resto del importe abonable a la finalización y entrega del trabajo conforme. Los contratos se publicarán en la página web del Teatro Arriaga, en el apartado de Perfil del contratante.

En el caso de no ejecución final de los trabajos o que la calidad de los mismos no se corresponda con el Proyecto presentado, el importe anticipado deberá ser devuelto, y en ningún caso corresponderá el abono del importe de la bolsa.

La participación en esta bolsa de Proyectos supone la aceptación de las normas establecidas en la bases de la convocatoria.

La Comisión de Valoración queda autorizada para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del cumplimiento y buen fin de esta bolsa de proyectos, en todo lo no previsto en estas bases.

En Bilbao, a 31 de marzo de 2021.